

/ Nabarmentzekoak

- > Txori eta saguzarrentzako Habi-kutxei buruzko tailerra (2. or.)
- > Umorezko bakarrizketak Romo Kultur Etxean (3. or.)
- > Itsas salbamenduko beste ontzi bat eman zaio Itsasoko Gurutze Gorriari (5. or.)



Getxoko Ubikare eta Mercales enpresak, On Bizkaia saria jaso dutenen artean (5. or.)

Liburuaren aurkezpena. Otsailak 19, asteartea, 19:00etan, Juan Carlos Perezen "Helvegen" eleberriaren aurkezpena, Algortako Kultur Etxean. Sarrera dohainik.

XVIII. Abra Saria. Otsailak 22, ostirala, Azebarri Kultur Elkarteko egoitzan (Euskal Herria, 14-16), 20:30ean, afaria, eta 22:00etan, bertso saioa.

**A-
GENDA**

Eskatzeko epea otsailaren 19tik martxoaren 18ra egongo da zabalik

Udalak 391.737€ bideratuko ditu Garapenerako Lankidetzako proiektuetarako

Otsailaren 19tik martxoaren 18ra bitartean zabalik egongo da Garapenerako Lankidetzarako proiektuen urteroko diru-laguntzak eskatzeko epea. Aurten ere Udalak 391.737€ banatuko ditu ohiko hiru diru-laguntzen ildoan artean. "Garapen Iraunkorreko Helburuak Garapenerako Lankidetzarako ezinbesteko erreferentzia dira, eta hori dela eta, diru laguntza deialdi honetarako ezinbestekoak. [17 Garapen Iraunkorrerako Helburuen](#) artean daude txirotasuna ezabatzea, klima aldaketari aurre egitea, hezkuntza, emakumeen berdintasuna, ingurugiroaren defentsa edo eta gure hirien diseinua", azaldu du Irantzu Uriartek, Garapenerako Lankidetzako zinegotziak.

Diru-laguntza lankidetzaren alorrean lan egiten duten pertsona juridikoek eskatu ahal izango dute, esate baterako, Gobernu Kanpoko Erakundeek, erlijio-kongregazioek. Informazio gehiago www.getxo.eus/eu/cooperacion-al-desarrollo/subvenciones helbidean. Eskaerak Udalaren webgunearen Administrazio Elektronikoko Bulegoan aurkeztu beharko dira: www.getxo.eus

Diru-laguntzen ildoak

Lehenengo diru-laguntza ildoak 320.000€ izango ditu, txirotutako herrialdeetan aurrera eramaten ari diren proiektuak finantzatzeko. Horien bidez, tokian tokiko gaitasuna eraldatzeko aldaketak bultzatu nahi dira.

Horretarako, genero ikuspegia kontuan hartzen duten ekimenek lehentasuna edukiko dute eta baita PNUDe egindako Giza Garapenerako Indize baxua edo oso baxua duten alde geografikoek ere.

Bigarrenaz, 56.737€ herritar getxotari

rei zuzendutako Sentsibilizazio eta Garapenerako Hezkuntzako proiektuen artean banatuko ditu Udalak.

Hirugarren ildoak 12.000€ aurreikusitako diru krisi egoerei aurre egiteko, eta eskaerak aurkezteko epea abenduaren 1era arte luzatuko da. Krisi egoerak

natura kausek edo gatazkek eragin dezaketek. Lehen mailako beharrak asetzeko ere izan daitezke edo bere bat-batekotasunagatik aurreko ataletan sartzen ez diren kasuetarako ere. 3.000€ ere adingabeen harrera programetarako izango dira.

ARGAZKIA: Albert Uriach

Ekitaldiaren buruan, Urkullu Lehendakaria

Bizkaia Zubiaren 125. urtemuga ospatzeko ekitaldiak amaitu dira, "euskal industriagintzaren urrezko araoaren ikur"

Bizkaia Zubiak bere 125. Urtemuga ospatzeko jarduera-programari amaiera eman zion aurreko astelehenean, Iñigo Urkullu lehendakaria eta Getxo eta Portugaleteko alkateak, Imanol Landa eta Mikel Torres, besteak beste, buru izan zituen ekitaldi batez. Ekitaldian zehar, eta beren lanagatik esker ona irabazteko, transbordadoreko langileek oroitzapenezko plaka bat jaso zuten Zubiko presidente Marta Uriarteren eskutik.

Lehendakariak Zubiari buruz aipatu zuen "euskal industriagintzaren urrezko araoaren ikurra da, gure iragan metalurgikoarena" eta bere arrakasta sozial handia azpimarratu zuen: "duela 125 urte Bizkaia Zubiak elkarri bizkarra emanda bizi ziren bi mundu banandu egiten zituen. Gaur egun, zorionez, gizarte bateratuago bat integratzen du".

Imanol Landa alkateak bestalde, adierazi zuen "Bizkaia Zubiak getxotarren eta portugaletarren hainbat eta hainbat belaunaldiren paisaiaren zati bat izan da eta izaten jarraitzen du, eta naturaltasunez barneratzen dugu bere presentzia txundigarria, harek duen garrantziaz eta dauzkan balio ukaezinez erabat konturatzen ez bagara ere".





OTSAILAK 14 OSTEGUNA

Getxon zuzenean. Areetako El Comercio tabernan, 20:00etan, Willie Endayaren kontzertua (bluesa). Sarrera dohainik.

Gizatiar. Romo-Areetako Emakumeen elkarte sozio-kulturala. **Errumaniako bidaiaren aurkezpena,** 17:00etan, San José Obrero parrokiako areto nagusian. 18:15ean, **Ipuin-kontalaria.** Gaia: "Haria galdu gabe", Anabel Murorekin.

OTSAILAK 15 OSTIRALA

Zine kluba. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Isaki Lacuestaren "Entre dos aguas" pelikularen proiektzioa eta foruma. Sarrera: 3,50€

OTSAILAK 16 LARUNBATA

XI. Neguko Bidaia zikloa. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean, Aurkene Núñez & Marco Borge taldearen kontzertua (abesti latinoamerikarra). Sarrera: 5€ (eskolako ikasleentzat 3€).

Ingurumen Aretoa. Familientzako ibilbide gidatua, Galeatik Azkorri-raino: "Gure kostaldeko hegaztiak", Betsaideren eskutik (SEO/BirdLife). Beharrezkoa da alde zuzeneko izena ematea. 10:30etik 13:30era. Informazio gehiago: 688 88 35 96 eta <http://www.ingurumenaretoagetxo.eus/?lang=eu>.

Antzerkia. Utopian sormen-gunea, 20:00etan, "Sin Rumbo"-ren antzezpena, Arantxa lurreren zuzendaritza pean. Sarrera: 10€.

OTSAILAK 17 IGANDEA

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "La pequeña bruja". Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

Antzerkia. Romo Kultur Etxean, 19:00etan, "Monólogos de humor": Sol Maguna, "Sí, hombreeee..." eta Gemma Martínez, "Terapia de grupo". XIII. Emakumeak Eszena zirkuitua. 3€.

Antzerkia. Utopian sormen-gunea, 19:00etan, "Sin Rumbo"-ren antzezpena, Arantxa lurreren zuzendaritza pean. Sarrera: 10€.

Ingurumen Aretoa. Txiki tailerrak: "Egin ezazu arrainontzi bat!" 6-14 urte. 10:30etik 13:30era. Informazio gehiago: 688 88 35 96 eta <http://www.ingurumenaretoagetxo.eus/?lang=eu>.

Mendi irteera. San Vicente (Hornijo mendia, Kantabria). Antolatzailea: Etorkizuna Mendi Taldea. Informazioa eta izena emateko: etorkizunamt@gmail.com eta 606 63 71 28 (whatsapp).

OTSAILAK 18 ASTELEHENA

Odol-ateratzea. Algortako Geltokia plazan. Goizez eta arratsaldez.

Mugabarik. Norbanakoaren trebatze eta garapenerako Elkartea. Pinturari buruzko triptikoa. Hizlaria: Emilio Melón Ortega (Arte Ederretan aditua). Lehenengo hitzaldia: "Berlín, ciudad europea". 19:30ean, Villamonteko Kultur Etxean.

OTSAILAK 19 ASTEARTEA

Liburu aurkezpena. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, Juan Carlos Perezen "Helvegen" eleberraren aurkezpena.

OTSAILAK 21 OSTEGUNA

Odol-ateratzea. Areetako Geltokia plazan. Goizez eta arratsaldez.

Ipuinaren ordua. Romo Kultur Etxeko haur-liburutegian, 18:00etan, "Animalien biltzarra", Maider Alcelayren eskutik. Euskaraz. 4-8 urte bitarteko umeentzat. Sarrera dohainik da.

Literatura solasaldia. Algortako Kasinoan, 19:45ean, Kultur Etxearen Sortze-idazketa tailerraren eskutik, "La retomada" (Donatela di Pietrantonio) liburuaren inguruan solasaldia. Sarrera dohainik.

Getxon zuzenean. Kirol Portuko Silver's Tavern pubean, 20:00etan, Cloverwind taldearen kontzertua (folka). Sarrera dohainik.

Gizatiar. Romo-Areetako Emakumeen elkarte sozio-kulturala. Hitzaldia: "Gaixotasun psikosomatikoa". Hizlaria: Galletero doktorea (psikiatra). 18:15ean San José Obrero parrokiako areto nagusian.

OTSAILAK 22 OSTIRALA

XVIII. Abra Saria. Azebarri Kultur Elkarteko egoitza (Euskal Herria, 14-16), 18:15ean hasiko da saioa San José eta 22:00etan, bertso saioa izango da. Informazioa: albegetxo@gmail.com eta 605 70 43 85. Antolatzailea: Algortako Bertsolari Eskola (ALBE).

Zine kluba. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Arantxa Echevarriaren "Carmen y Lola" pelikularen proiektzioa. Emanaldiaren ostean foruma egingo da. Sarrera: 3,50€.

OTSAILAK 23 LARUNBATA

XI. Neguko Bidaia zikloa. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean, Gonzalo Tejadaren kontzertua (jazz). Sarrera: 5€ (eskolako ikasleentzat 3€).

Ipuin kontaketa: Storytime (for babies). Algortako Kultur Etxean, 10:30 eta 11:45ean, Kids&Us Algorta-Getxoren eskutik, "Welcome to the jungle". Ingelese. Adina: 10-36 hilabete. Sarrera: Kids&Us Getxon eta Algortan jaso beharreko gonbidapenez. Leku mugatua.

Belaontzi estropadak. Kirol Portuko Orzaren eskutik.

OTSAILAK 24 IGANDEA

Magia ikuskizuna. 18:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Liluraren laborategia", Sun magoaren eskutik. Euskaraz. Familia osoarentzat. Sarrera: 5€.

Abusu arrantza txapelketa. Kirol Portuan.

eramateko. Halaber, umezain lana egin dezaket asteburuetan. Euskaraz eta gaztelerez hitz egiten dut. Tel.: 688 628 110. Iratxe.

- **Andrea prest dago** pertsona zaharrak, umeak... zaintzeko Tel.: 632 75 83 01.



- **Ingeniaritzako** ikaslea. Nere burua eskaintzen dut umeak bus geltokira edo ikastolara

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia eragazkotasanaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Bilbo Metropolitanreko Paisaiari buruzko hiritar foroa hartuko du Getxok

Getxok hartuko du hil honen 21ean, ostegunarekin, Foru Aldundiak Bilbo Metropolitanreko Paisaiaren Katalogoa prestatzeko asmoz antolatu dituen herritarren lau foroetako bat. Foroa Getxo Elkartegian (Ogoño 1, Areetan) egingo da, 18:00etatik aurrera. Gainontzeko hiru saioak Barakaldon, Lezaman eta Bilbon antolatuko dira, hilaren 18, 19 eta 20an, hurrenez hurren. Saio horietan, besteak beste, gure paisaiaren balioak



eta identitate-elementuak, berriazko arreta eta zaintza behar duten aldeak, azken urteetan sufritu dituen aldaketak eta gure paisaia norantz abiatzea nahi dugun aztertuko dira. Aldundiak abiatutako egitasmo hau lagundu nahi dutenentzat baina bertaratu ezin diren herritarrentzat Foru Sailak **Lurralde Bizia** plataforma eskaintzen du; toki horretan formatu digitaleko galdera-sorta bete daiteke.



Txori eta saguzarrentzako Habi-kutxei buruzko tailerra

Ingurumen Arloak **GETXOKO INGURUNE NATURALA: EZAGUTU ETA ZAINDU EZA-ZU** goiburuko jardunaldiak antolatu ditu larunbat honetarako, hilak 16, Romo Kultur Etxean, 09:30etik 13:00etara. Oraingo honetan, habi-kutxak (adimen urritasuna duten pertsonak egindakoak dira) muntatzeko tailerra antolatuko da; txori txiki eta saguzarrentzako habi-kutxak dira. Tailerra goizean egingo bada ere, bere helburua denboran luzatuko da; izan ere, habiak muntatu eta apaindu ondoren, identifikazio zenbaki batekin pertsonalizatuko dira, ondoren, udalerriko parketan kokaturik, haien jarraipena egin ahal izateko. Udalaren webgunean, habien kokapen zehatza kontsultatu ahal da, baita horien jarraipena egin ere. Horretarako, jarraibide erraz batzuk emango dira eta aipatutako informazioa webera igorri eta bertan gehitu ahal da, habi bakoitzari dagokion fitxan. Ez da beharrezkoa alde zuzeneko izena ematea, baina bai gomendagarria (ingurugiroa@getxo.eus / Tel.: 944660191).



Kangurok bere 50. urteurrena ospatuko du

Andra Marin lekututako Kanguro haurtzaindegiak bere 50. urteurrena ospatuko du 2019an. Bost hamarkada hauetan hamaika ume igaro dira bere geletatik, nekazal inguruan kokatuta eta lorategiarekin. Kanguroko egungo bazkideek, Martak eta Mariasunek, 22 urte daramatzate zentroaren ardurarekin, "familia arteko giroan, eta balioen heziketari eta ingurugiroarekiko begiruneari garrantzia ematen, besteak beste. Azken beritasuna izan da 2015ean abian jarritako eskola ortua", zehaztu dute.

480 ikaslek hartu dute parte Sentiktuz programan

11 ikastetxetako Lehen Hezkuntzako 5. mailako 480 ikaslek parte hartu dute harreman fisiko eta digitaletan ongizate integrala sustatzea helburua duen **Sentiktuz** izeneko programan. Hori Udalak 2018ko azken hiruhilekoan antolatu zuen, adikzioak prebenitzeko egitarauaren barruan. Ekimenean 10 eta 11 urteko 253 mutilek eta 227 neskek, bi orduz, harreman fisiko eta digitaletan, emozioak kudeatzeko, afektibitate eta sexu harreman osasungarriak garatze eta teknologia berriek duten eraginari buruzko hausnarketa egiteko aukera izan zuten.

Ondorioak

Ondorioen artean, egiaztatu zen eduki bortitza, sexuala eta sexista duten bideo-jokoekin gehiegi jolasten dutela parte hartzaile askok eta hainbat ikasleek ondorioztatu zuten horiek badutela efektua beraien izaeran. Haurrek uste dute profil bat modu pribatuan izatea segurua dela sarean ibiltzeko, eta horregatik segurtasun eta pribatutasun neurriak azpimarratzeko beharra izan zen saioetan. Besteak beste, eduki sexista eta estereotipatuak buruzko hausnarketa egin zuten ikasleek, emozioak agertzeko arazoak aitortu zituzten eta kasu batzuetan familiak ipinitako mugak beharrezkoak direla onartu zuten.

"Horrelako ekimenek agerian uzten duten informazioa oso garrantzitsutzat jotzen dugu eta baita taldeen, familien eta irakasleen papera ere. Horregatik mota honetako programak sustatzen eta baliabideak eskaintzen segituko dugu, sozializazio modu desberdinak osasuntsuak izatea lortzeko, beraien arteko harremanei, heziketari eta emozioei lehentasuna ematen. Une honetan, Familia Eskolak antolatzen dituen saioetan horrelako gaiak jorratzen dituzte eta gurusoak animatzen ditut parte hartzera", aipatu du Elena Coria zinegotziak.

Umorezko bakarrizketak Romo Kultur Etxean

Igandean, otsailak 17, 19:00etan, umorezko bakarrizketak izango dira Sol Maguna eta Gemma Martínezen eskutik, Romo Kultur Etxean, RKE. Antzezkiak *Emakumeak Eszenan* izeneko zikloaren XIII. edizioaren barruan kokatzen da eta sarreraren prezioa 3€koa izango da.

Oraingoan, zikloak Sol Magunaren *Sí, hombreeee...* izenburuko aurkeztuko du eta horretan zer gertatzen dan bikoteen harremanekin? eta zergatik ez dabilta? galderei erantzuten saiatuko da. Bestetik, Gemma Martínezek *Terapia de grupo* lanean galdera nabarmenak ere luzatuko ditu, esate baterako, Elsa Pataki eta bera arima bikiak dira?, Nolako izango da etorkizuna?, Zer gertatzen da maitasunarekin? talde terapia berezian.



Gemma Martínez



Sol Maguna

Neguko Bidaia zikloak jarraitzen du, Aurkene Núñez & Marco Borgeren kontzertuarekin

Aurkene Núñezek eta Marco Borge kontzertua eskainiko dute larunbat honetan, hilak 16, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean. Errezitaldia, XI. Neguko Bidaia kontzertu zikloaren barruan dago eta sarrera 5 eurokoa da (3€ musika zentroko ikasleentzat).

Ibilbide intimista eta pertsonalaz gozatu ahal izango da, latinoamerikako kantautore ezberdinen abestien eskutik. Maitasunari buruzko gaiak jorratzen ditu, hainbat ikuspegitatik abiatuta. Bidaia honetan, bere generoaren barruan, ikonoak izan diren eta oraindik ere ikonoak izaten jarraitzen duten abestiak aurkituko ditugu.

Aurkene Núñez Donibane Lohizunen jaio zen; geroago Mexikora joan zen eta han hasi zituen piano-ikasketak. Hamahiru urte zituela, bere familia Bizkaira etorri zen behin betiko, eta bertan, Gradu Profesionaleko ikasketak egin zituen, Barakaldoko Musika Kontzertuak. Musika Irakasle ikasketak egiten ditu EHU eta Musika irakaslea da St. George's English Schoolean.

Halaber, hainbat orkestretako kantari gisa aritu da, baita bakarlarik gisa ere, eta zinemarako, publizitaterako eta

diskoetarako grabazio desberdinetan kolaboratu du. 2016. urteaz geroztik, Gintonic taldeko kidea da.

Marco Borge gitarrajolea eta konpositorea da. Musika eskola ezberdinetan trebatua: klasikoa, jazz, afrokubarra eta brasildarra, gitarra da bere musikatresna nagusia, flamenkoa estilo-espezialitate gisa landuz.



Gaur egun, irakaskuntza eta eszena-eremuaren artean mugitzen da bere jardura musikala, bakarlarik gisa, flamenkoari lagunduz, edo MASIOMPA laukotearekin jotzen.

Esperientzia zabala eta akreditatua du bere geografia-eremuko musika eta kultur zikloen diseinuan eta antolaketan.



Musika ikuskizuna J.S.Bachi dedikatuta

José Manuel Cacho biolinistak eta Víctor Jiménez pianistak osatutako Impromptu bikoteak Johan Sebastian Bachi dedikatutako musika ikuskizuna aurkeztuko du datorren asteazkenean, hilak 20, 19:00etan, Areetako Musika Eskolan. Las 3 Bes izeneko zikloaren barruan (Bach, Beethoven, Brahms), gonbidatutako artistak Oihana Landa (flauta) eta Javier Navascués (biolina) dira. Sarrera 5€ da (3€ musika zentroko ikasleentzat).

J.S.Bach da Mozarten aurreko konpositore garrantzitsua, eta batzuen arabera, sekula izan den konpositorerik onena izan da. Bere musika egiaztatutako maisutasunaren adibidea da (teklaturaren zikloaren egindako zenbait lanetan aldi berean bost lerro melodiko jorratzeko kapaza). Gainera gizatasun sakoneko obraren egilea izan da musikaria.

Haurrentzako tailerrak Romon eta Algortan


Datorren astelehenean, hilak 18, zabalduko da Giza Eskubideei buruzko Ipuin eta Esku-lanen tailerretan parte hartzeko izena emateko epea, 4 eta 6 urte bitarteko haurrentzat. Matiz elkartea arduratuko da tailer horiek aurrera eramateaz martxoaren 15ean, 22an eta 29an, RKE-Romo Kultur Etxeko liburutegietan 17:00etan, eta Algortako Kultur Etxean 18:30ean. Ekimena doakoa eta elebiduna da, eta bizikidetzaren aldeko baloreak landuko dituzte, esate baterako, lankidetzaren, elkarrenganako errespetua, onarpena, kultur aniztasuna, genero ekitatea, hizkuntza normalizazioa, erantzukizuna edo naturarekiko begirunea, besteak beste.

Izenematea hilaren 18tik aurrera egin ahal izango da: www.getxo.eus/apuntazaituz Informazioa: aipatutako liburutegietan.



Marrazoez jardunean Karlos Simónekkin

Alfonso Mateo-Sagasta (Madril, 1960) historialari eta idazleak *Tratando de tiburones con Karlos Simón* liburua aurkeztu zuen aurreko larunbatean, hilak 9, Faturan. Liburuan, gaur egun marrazoez bizi duten egoera erreparatzen du, baita espezie horren desagertzearen arrazoiak ere. Horretarako, liburuaren protagonistaren lekukotasuna hartzen du kontuan, Karlos Simónena. Izan ere, Simón 1988az geroztik dabil bost kontinenteetan barrena urpean igeri egiten, 10.000 urperalditik gora dituela. Horrez gain, marrazoetan aditua, urpeko kamerari, dokumental zuzendari eta telebistako aurkezle da.



Aparteko zereginei buruzko koaderno

Pablo Müller (Bilbo, 1961), Javier Bermúdez de Valenciaren heteronimoa eta adopzioz gertotarra den idazleak, *Cuaderno de las tareas extraordinarias* liburua aurkeztu berri du. Liburu hau, idazlearen arabera, "terapia antzeko bat bezala jaio zen. Premisa batzuk zituen: lo egiten nuen logelako ohe-mahaian egon behar zen, bertan idatzi behar nuen itzartutakoan, ametsen bultzada jasotzeko balio behar zuen, egunei eta beren ohikeriei hobeto aurre egiteko. Eta hori dena lanean izandako haserre batengatik". Müllerrek *Contra el miedo* poema-bilduma idatzi du eta olerkiak argitaratu ditu hainbat poesia-antologietan.

“Ogoño I” izenekoa dauzkan beste 13ei gehitzen zaie

Itsas salbamenduko beste ontzi bat eman zaio Itsasoko Gurutze Gorriari

112ren Europako Eguna zela eta, Eusko Jaurlaritzak erreskateko beste ontzi bat eman zion aurreko astelehenean Itsasoko Gurutze Gorriari. Ontzi berriak, euskal kostaldeko uretan salbamenduak egiteko beharrezkoak diren baliabide guztiak ditu, eta horrekin laguntza-erakundeak duen flota indartu eta modernizatuko da.

Eusko Jaurlaritzak organismo horri azken urteotan eman dizkion 14 salbamendu-ontzien flota osatzen du ontziak. Estefanía Beltran de Heredia Segurtasun sailburuak Gurutze Gorriak egindako lana azpimarratu zuen; halaber, gogora ekarri zuen “lankidetzaz hau estrategikoa da Departamentuarentzat, Estatutua erabat bete arte beti aldarrikatuko dugun itsas-salbamenduko kompetentzia oso batek izan beharko lukeenaren bidea erakusten digu. Eskertu nahi diot Gurutze Gorriari, gure baliabideekin eta berak dauzkanekin eskaintzen duen zerbitzua; esker on honek noiz edo noiz itsasoan Gurutze Gorriaren laguntza jaso duten hiritarren bihotz taupada ordezkatzeko du”.

Unitate berriaren ezaugarriak

Ogoño I izeneko unitatea eraiki berria da, azken belaunaldikoa, eta ontzia erosteko eta ekipatzeko 186.000 euroko inbertsioa egin behar izan da. Kabinadun ontzi bat da, ia bederatzi metroko luzera eta hiru metroko erruna ditu, eta tona eta erdiko desplazamendua dauka.

Karelez kanpoko bi motor ditu, guztira 450 Cv-ko potentzia ematen diotenak. 35 korapiloko gurutzaldi-abiadura har dezake eta autonomia handia du, 620 litro erregai sartzen baitira deposituetan.

Ontziak itsasoan erreskateak egiteko beharrezkoak diren baliabide guztiak ditu (nabigazio- eta komunikazio-sistemak, radarra, AIS identifikazio automatikoko sistema, Intercoma, GPSa, bozgorailua, sirena, larrialdi-argiak,



ontziak atoian eramateko sistema, eta abar).

Unitate honekin Itsasoko Gurutze Gorriak gaur egun kudeatzen dituen 14 erreskate-ontziak osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko itsas salbamenduko ekipamendua. Ontzi horiek Arriluzen (3 unitate), Bermeon (2), Ondarroan (2), Getarian (2), Donostian (2), Pasaian (1) eta Hondarribian (2) daude. Guztiak Eusko Jaurlaritzak laga ditu.

2018an artatu diren gorabeherak

Era berean, eta Europar Batasun osoan urtero otsailaren 11n ospatzen den Larrialdietako 112 telefono-zenbakiaren Europako Eguna dela eta, Segurtasun

Sailak SOS Deiak Koordinazio Zentroen iazko balantzearen berri eman du.

Aipatutako zentro horiek 822.260 dei artatu zituzten eta 220.193 gorabehera kudeatu zituzten 112 telefono-zenbakiaren, SOS Deiak App-ren eta Europako e-Call sistemaren bidez. Zifrak 2017koen oso antzekoak dira (864.261 dei eta 205.708 gorabehera).

Aurreko urteetan bezala, artatutako gorabehera gehienak larrialdi medikoekin (% 22,11), kalean arriskuak hautematearekin (% 19,15), herri-tarren segurtasunarekin (% 15,44), pertsonen istripuekin (% 14,14) eta trafiko-istripuekin (% 9,77) lotuta zeuden. Artatutako deiei dagokie-

nez, Bizkaian 449.748 dei izan ziren, Gipuzkoan 259.716 eta Araban 112.796.

Lurraldean arabera, Bizkaian guztira 104.028 gorabehera artatu ziren (2017an 99.535), Gipuzkoan 74.123 (2017an 70.274) eta Araban 42.042 (2017an 35.899). Artatutako deiei dagokienez, Bizkaian 449.748 dei izan ziren (2017an 471.693), Gipuzkoan 259.716 (2017an 265.024) eta Araban 112.796 (2017an 127.544).

112ren Europako Eguna egiten da herri-tarrei gogora ekartzeko 112 Europar Batasuneko estatu guztietan dagoela erabilgarri, eta kabina batetik, telefono mugikor batetik edo telefono finko batetik markatu daitekeela.



Jolaseta da patin-hockeyko Ipar Ligako txapelduna

Real Club Jolaseta taldea da Ipar Ligako txapeldun berria, aurreko igandean, hil honen 10ean, Iruñaren aurka jokaturako infartuzko partida batean hiruna berdindu ondoren. Ángel Galmanek entrenatutako mutilek zazpi puntu batu zituzten lauko finaleko ligaxkan eta bi asteburu barru igoera lortzen ahaleginduko dira. Hortaz, Iparraldeko Ligako multzoko lehenengo bi sailkatuek asturiar eta galiziar txapeldunen aurka jokatu dute Zilarrezko OK Ligara igotzeko, Negurin aurreko astean jokaturako lehiaketa haren lehenengo bi tokiak eman ondoren. Ezustekoak izan ziren larunbateko jardunaldian, Iruña Hockeyek, faboritoen artean zegoen taldeak, galdu egin baitzuen gutxiatik, 2-3, Loiola Indautxuren kontra, aurreneko partidari. Nafarrak bizkortu egin ziren hurrengo norgehiagokan, Gurutzetari 9-1 irabazita. Ángel Galmanen talde urdin-horia bestalde, nagusitasun osoz garaitu zen lehenengo fase honetan. 6 eta 2 irabazi zion Gurutzetari eta 0 eta 4 bilbotarrei. Gauzak horrela, Jolasetak Iruñaren aurka jokatu eta Ipar Ligako txapela lortu zuen.



Patinaje Artistikoko seigarren Getxo Hiria Nazioarteko Txapelketa

Fadurako kiroldegiak Patinaje Artistikoko seigarren Getxo Hiria Nazioarteko Txapelketa hartuko du ostiral honetatik igandera bitartean, otsailaren 15etik 17ra. Lehiaketa Getxo Show Patinaje Klubak antolatzen du Getxo Kirolak-ekin elkarlanean, eta, bertan, modalitate horretako 350 kirolari baino gehiagok hartuko dute parte. Euskadi, Nafarroa, Errioxa, Kantabria, Asturias, Gaztela eta Leon, Galizia, Aragoi, Katalunia eta Frantzia eta Italiako klubetako ordezkariak izango dira. Parte-hartzea berretsi duten kirolarien zerrendan, emakume zein gizonezkoen kategorian, nabarmentzekoa da Espainiako eta Europako Txapelketak lortu dituzten nazioarteko lehen mailako zenbait patinatzaile izango direla. Asteburu osoan, maila guztietako txapelketak eta erakustaldiak antolatuko dira, baina larunbat arratsaldean egingo dira, 16:30etik aurrera, maila handieneko eta publikoarentzat interes handieneko probak. Sarrera dohainik da eta programazio osoa klubaren Facebook orrialdean kontsulta daiteke (Club Patinaje Show Getxo).



Nerea Amenabar, Ángel Díez, Aina Basurko (Beazeko Zuzendari nagusia) eta Javier Pérez.



Alejandra O'Shea, Carolina Pérez Toledo (AEDko presidentea) eta Mercedes Gallego

Beaz foru sozietate publikoak ematen ditu sariak

Getxoko Ubikare eta Mercules enpresak, On Bizkaia saria jaso dutenen artean

Getxoko bi enpresa, Ubikare eta Mercules, daude 2019ko On Bizkaia sariak jaso duten enpresa txiki eta ertainen (ete) artean. Beaz Foru Aldundiaren sozietate publikoak ematen ditu sariak. Sari hauek, Bizkaiko enpresa txiki eta ertainak goraipatzen dituzte urtero, gure lurraldean jarduera ekonomikoa eta lanpostuak sortzeko aurreikuspenak betetzeagatik. Ubikareri, menpekotasuna duten pertsonentzat etxeko zainketa-zerbitzu osoa eskaintzen duena, *Gizarte Ekintzailtza eta Berrikuntza Proiektu Onena* saria eman diote; eta Merculesek, eskuz egindako larruzko osagai eskusiboen enpresa, *Bizkaia Sortzailea Proiektu Onena* saria jaso du.

Ubikare

Ubikare duela bi urte sortu zen gizarte-osasun sektorean konponbide berriak eskaintzeko eta, esate baterako, jende nagusiak bere etxean bertan bizi eta arreta jasotzeko duen nahiarri erantzuna emateko. Areetan, Gasteizen eta Azpeitian daude kokatuta bere zentroak eta Angel Díez (zuzendari nagusia) eta Nerea Amenabar (finantza zuzendaria) dira haren fundatzaileak. Bezetik adierazi dutenez, Ubikareren erronka auto-zainketa, independentzia eta elkar-erantzukizuna sustatzea da, arreta alaitz gehien pertsonalizatuz. Zerbitzu integrala da, Euskadi osoan ematen dena eta gizarte eta osasun behar guztiak betetzen dituena. Horretarako, Bezetik nabarmentzen dutenez, software bat diseinatu dute



Ubikarek menpeko pertsonak etxean zaintzeko zerbitzu integrala eskaintzen du



Merculesen Neguriko denda

aukera ematen duena osasun fisiko, mental eta emozionalaren plan espezifikoa diseinatzeko, profesionalak gain-ikusia, eta lasaitasun eta segur-

tasuna ematen die zaintzaileei zein zaindutakoei. "Denok ez gara berdinak. Beraz, tratamenduek ez dute berdinak izan behar. Softwareak gaixoari aplikatu dakizkio-

ken praktika onenak ditu bere patologiaren arabera", Angel Díez Ubikareko zuzendari nagusiak aipatu duenez.

Mercules

Duela sei urte sortua, eta gezi bat enpresa-marka gisa duela, Mercedes Gallegok (zuzendari sortzailea) eta Alejandra O'Shea (zuzendari eragilea) zuzentzen dute Mercules. Enpresak gaur egun bi denda propio dauzka, Negurin eta Madrilan. Artisan-lana, kalitatezkoa eta diseinu propioarekin, luxu eskuragarria defendatzen duen marka. Horrelaxe definitzen du bere burua Merculesek. Bezetik nabarmendu dutenez, "nazioarteko merkatua konkistatzea lortu du, marka anitzeko denden bitartez Japonian, Ingalaterran eta Frantzian ere dagoela. Hasiere batetik izan duten irrika eta indarrari esker, enpresa honen sortzaileek beren burua egunez egun berriz asmatzen jakin izan dute, eskuz egindako osagai unibertso oso bat sortzeraino: gerrikoak, diru-zorroak, mantak, paper-gauzak eta abar. Aukera mundu bat, oinetako-lerro bat gehitzear dagoena, eta gizonezkoak ere harritzeko aukerari ere atea itxi nahi ez diona".

2019a mundura zabaltzeko urtea da Merculesentzat, langile kopurua ez ezik bere instalazio kopurua ere handitzen jarraituko baitu, bere unibertsoa haziz doan heinean txiki geratzen ari direlako. Enpresa honen geziak orain herri eskandinaviarrak erakusten ditu eta bere hurrengo helburua Estatu Batuetan dira.

"Zerbitzuen diseinua", Getxolanen prestakuntza-programa

Getxolan-Sustapen Ekonomikorako eta Enplegurako udal Zerbitzuak prestakuntza-programa bat antolatu du, *Diseinuen Zerbitzua*, enpresei zuzendua. Helburua da enpresak beren bezeroen premiak zein diren jakin eta haien kontsumo-esperientzia hobetuko duten irtenbide hobeak eta berriak garatzea. Izan ere, teknologian izan diren aurrerakuntzen ondorioz kontsumitzeko erak aldatzen joan dira. Bezeroen erosteko esperientzian hobekuntzak identifikatzean datza, fidelizazio-estrategia gisa erabili ahal izateko.

Metodologia

Ikastaldia bost saiotan egingo da Getxolanen, dohainik, eta bi orduko iraupena izango du bakoitzak, 14:00etatik 16:00etara. Lehenengoa, sarrera gisako tailer bat



izango da, eta prozesu osoan erabiliko diren metodologia eta tresnak aurkeztuko dira. Ezinbestekoa da lehen saio horretan parte hartzea gero egingo diretan ere parte hartu ahal izateko. Ez dago saio guztietan parte hartu beharrik; lehenengoan erabaki ahal izango da zein saio nahiago den eta horretara joan.

Hona heman saioen egunak eta edukiak:
*Otsailak 19: Aurkezteko hasierako modula.
*Martxoak 5: Esploratzea, enpatia izatea eta definitzea.

*Martxoak 12: Bururatzea.

*Martxoak 27: Prototipoak egitea.

*Apirilak 1: Probatzea.

Beharrezkoa da alde zuzeneko izena ematea: tel. 94 466 01 40. <http://www.getxo.eus/eu/getxolan/noticias/377> edo txopro@getxo.eus

Udal talde politikoaren iritzia



KONPROMISOA: ZORROZTASUNA ETA ARDURA

Herritarrentzako zerbitzu publikoen eremu guztietan bezala, udala kudeatzeko ere zorrozatasuna eta ardura izateko konpromisoa behar da. Bada, horiek dira EAJren jardunaren bi zeharkako ardatz; Getxon ere bai, noski. Zorroztasuna eta ardura getxotarrentzako kalitatezko zerbitzuak bermatzeko; izan ere, udalaren jardunaren eremu guztietan bizi-kalitatea bultzatzen jarraitzen dute. Azken finean, herritarren diru publikoa hobeto banatzeko konpromisoa. Adostasuna bilatu nahi izan dugu aurrekontuaren negoziaketaren bidez Getxoren modernizazioa eta aurrerapena bultzatzen jarraitzeko. Dena den, hauteskudeen gertutasunagatik agian, jaso dugun erantzuna ez da positiboa izan.

Hala ere, EAJk Getxoren aldeko apustua egiten jarraitzen du, eta ahalik eta garapen handiena lortu nahi du honako arlo hauetan: gizartea, ekonomia, kultura, kirola eta jasangarritasuna. Horretarako, 2019an 101 milioi euro baino gehiagoko luzatutako aurrekontu bateratua ixtea lortu dugu. Horri 8,5 milioi baino gehiagoko aurrekia batu behar zaio. Udal gobernuaren lan onak, zintzotasunak, ardurak eta zorroztasunak getxotarrei ahalbidetu die maila handiko zerbitzuak izatea honako arlo hauei dagokienez, besteak beste: gizarte-politikak (ia 18 milioi); gure herriaren hobekuntzarako eremuak eta oinarriko zerbitzuak (39 milioi); jarduera ekonomikoaren sustapena eta kudeaketa zorrotza (20 milioi), eta gobernu irekia, kirola, kultura eta mo-



dernizazioa (31 milioi). Horrez gain, udal zorra pixkanaka gutxitzearen bidez, inbertsioen programa aipagarria izaten jarraitzen dugu: ia 4 milioi Gaiatzako aparkalekurako eta 3 milioi baino gehiago oso ikusgarriak ez baina funtsezkoak diren gauzetarako; hau da, saneamendua, estolderia, ur-sarea, parke eta lorategiak eta argiteria, besteak beste. Eta inbertsio gehiago: beste 3 milioi etxebizitzarako eta 1,2 milioi baino gehiago kirol-instalazioetarako. Horrez gain, irisgarritasunarekiko Getxoren apustu handia nabarmendu behar da, aurren 800.000 euroko inbertsioa izango duena. Zorroztasuna, ardura, zintzotasuna eta gardentasuna: konpromisoa bete dugu.

PSE-EE
PSOE

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZA GETXON

Urtarrileko osoko bilkuran, udal taldearen proposamenez, Eusko Jaurlaritzarekin lurzoruen aldaketa edo trukea egitea onetsi zen, duela zenbait urte hartutako konpromisoen akordioa praktikan jartzeko asmoz. Lehenengoa "Venancios" gunea da, eta bigarrena, berriz, Sarrikobasoko 31.1 unitatea (Maidagan, Urduñako Mendatea eta Iturribide kaleek mugatzen dutena). Lehenengoan babes ofizialeko 54 etxebizitza daude, eta Sarrikobason, berriz, 64, alokairurako direnak. Babes ofizialeko etxebizitzak egiteko Legegintzaldiko Planaren baitan dago proposamena, eta joan den legegintzaldian EAJren eta sozialisten artean adostutako Etxebizitza Planaren irudikapena eta jarraipena da. Badakigu gai konplexua dela eta beste erakunde batzuen esfortzua eta hainbat neurri hartzea eskatzen duela. 2016tik, EH Bilduren babesa dela medio, alokairurako laguntza batzuk daude, Getxoko gazteei emantzipatzeko aukera emateko helburua dutenak. Getxon hutsik dauden etxebizitzei buruzko errola zorrotza egin dugu, jakin ahal izateko horietako zeintzuk kudeatu daitezkeen alokairuan jartzeko eta, hala, jabetzak funtzio sozial bat bete ahal izateko. Lanean jarraitzen dugu.

Cs

ZURE AHOTSA IZAN NAHI DUGU

Argi daukagu zuek, getxotarrek, inork baino hobeto eza-gutzen duzuela zein eraberritze-lan behar dituen zuen inguruak, eta zuek izango duzuela, ziur aski, kexa, iradokizun eta ekarpen mordoa. Azken finean, Getxoren taupada zarete. Zuen ahotsa izan nahi dugu. Jar zaitzete gurekin harremanetan: herritarrek@getxo.eus **Twitter:** @CsGetxo, **Facebook:** Cs Getxo, **tfno:** 944660291. Zain gaituzue.



PP

GETXO ANTZOKIKO DIRU-XAHUKETA



Lau urtean egin behar zen eta hamar daramatzate. 30 milioiko kostua izan behar zuen eta 50 daramatzate. Hala, luzaroan zain egon eta diru asko xahutu ostean, badirudi Getxo Antzokia atea zabaltzen ikusiko dugula azkenean. Hori bai, dagoeneko milioi asko gastatu diren arren, badirudi ez dela nahikoa izan EAJrentzat; izan ere, inaugurazioan beste 51.000 euro gastatzeko asmoa du orain. PPK ez du halakorik onartuko. Udal gobernuak ezin dezake herritarren dirua erabili bere jaiak antolatu eta bere buruaren propaganda egiteko. Alkatetza lortzen badugu, gure lehen neurria antzokiaren auditoria egitea izango da, diru gehiago ez xahutzeko.

GUK

INDARTZEN: GETXON GIZARTE-LANA BULTZATZEN

GUK Getxok sortu zuen **INDARTZEN**, Getxoko elkarte-sareak proposatutako proiektuak diruz laguntzeko helburuz. Bada, ekimen horren bigarren deialdiaren amaieran **lau proiektu** hautatu dira, eta horiei esker honako asmo hauek egi bihurtu ahal izango dira: **IBILKIK** mendiko aulki berezi bat izatea mugikortasun arazoak dituztenentzako, **MUJERES CON VOZ** eta **SORTARAZI-HARRIBIDE** elkarteek beren zerbitzuak (babes juridikoa eta psikologikoa eta inklusioa eta prestakuntza, hurrenez hurren) ematen ja-

rraitzea, eta, azkenik, **FIDIAS FUNDATZIOAK** nerabe eta haurren sozializazioa antzerkiaren bitartez sustatu ahal izatea. Deialdi bietako oinarriak kontuan hartuta, lehenengokoak zein bigarrenekoak, ikus daiteke nahi izan dugula kolektibo behartsuak izatea emandako dirulaguntzen zuzeneko onuradunak. Hala, guztira **40.000 euro** jarri ditugu elkarte-sarearen eskura, gure zinegotzien dohaintzei esker. Horrek erakusten du gure kode etikoa jasotzen diren konpromisoak betetzen jarraitzen dugula. **GUK-eko kideokegiatatu** ahal izan

dugu Getxon lan egiten duten elkarte askok erakunde laguntza faltan igartzen dutela. Ondorioz, esfortzu handiz, boluntarioei esker eta baliabide gutxiarekin eman behar izaten dituzte beren zerbitzuak. Hori dela eta, hasieratik argi izan genuen hainbat arazo motari konponbideak eskaintzera bideratutako proiektu edo ekintzak babestu eta areagotu behar genituela; izan ere, arazo horiek hor egon arren, erakundeek ez diete aurre egin eta ez dituzte konpondu. Harremanetarako: guk@getxo.eus / 944660290.

ehbildu

EAJK ETA PSE-EEK EZ DITUZTE AURREKONTUAK NEGOZIATU NAHI

Aurren ere EAJ-k eta PSE-EEK aurrekontuak negoziatzeko asmoa ez dutela agerian utzi digute; ez behintzat Euskal Herria Bildurekin. Agian hauteskunde usainak ekarri du aurrekontuen negoziaketarik ez egotea, badirudi EAJ-k eta PSE-EEK interes horien menpe jarri dituztela getxoxtarrak eta getxoxtarren beharrak. Berandu aurkeztu zigun gobernu-taldeak aurrekontuen arretreproiektua, urrian aurkeztu behar zuena abendu bukaeran aurkeztu zigun. Bilerara deitu ziguten eta ohi

dugun bezala, negoziatzeko gure guretxieneko demokratikoa jarri genuen mahai gainean; lehenik eta behin, akordioa egon ala ez egon aurrekontuak Osoko Bilkuran eztabaidatu behar direla. Aurrekontuak direlako egitasmo politikoaren eta urtean egin nahi den eragin zintzoena, eta beraz, herritarrek ezagutu behar dute horren inguruan sortuko den eztabaida. Horri beste eskari bat gehitu genion, alkateak ere eztabaida demokratiko horrekin konprometitzea. Erantzuna jaso dugunean ikusi izan

dugu EAJk eta PSE-EEK ez dutela aurrekontuak Osoko Bilkuran eztabaidatzeko konpromisorik hartu nahi. Guretzat gutxieneko demokratikoa dira horiek; gainera, horiek ez dira berriak gobernu taldea osatzen duten kideentzat. Hala, 2016ko aurrekontuak luzatuko dituzte; horrek agerian uzten du negoziatzeko udal-gobernuak daukan borondate eza. Halere, EH Bildutik lanean jarraituko dugu negoziatzeko baldintzak guztion artean sor ditzagun.